



Gazteen Euskal Legearen aurreproiektuak haurrengan, nerabeengan eta familiengan izango duen eraginaren ebaluazioa

Sarrera

Uztailaren 28ko 26/2015 Legeak, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak, arau-aldaketa batzuk egiten zituen xedapen orokorrak egiteko prozesuan; zehazki, honako hauek izan ziren: lehenik eta behin, 22. artikulua, "Arauek haurrengan eta nerabeengan duten eragina" izenekoa, gehitu zion urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoari. Hau da artikulua horren testua: "Lege-aurreproiektuekin eta araudi-proiektuekin batera joan behar duten araudi-eraginaren analisiari buruzko memoriak araudiak haurtzaroan eta nerabezaroan duen eragina jasoko dute"; horrez gainera, hamargarren xedapen gehigarri bat eransten zaio, "Arauen eragina familietan" izenekoa, azaroaren 18ko 40/2003 Legeari, Familia Ugariak Babestekoari. Hau da xedapen horren testua: «Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren araudi-inpaktuaren azterketen memoriak araudiak familiengan duen inpaktua jaso beharko dute».

1.- Arauaren identifikazioa

1.1.- Arauaren izena

Txosten honek *Gazteen Euskal Legea* aztertzen du.

1.2.- Arauaren jatorria

Euskal gazteen premia eta eskaera nagusiei erantzutea da proiektuaren sorburuko arrazoia. Gizartean aldaketa handiak gertatu dira azken hamarkadetan, langabeziak, enplegu prekarioak eta ordainsari apalek asko atzeratu baitute gazteen emantzipazio-adina. Horrek guztiak asko murriztu dizkie gazteei bizitza independentea egiteko aukerak. Horrez gainera, gazte-izaeraren bereizgarri nagusiak aldarazi dituzte beste faktore batzuek, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bidezko aisia-modu berriek, asteburuetan mugitzeko eta dibertitzeko ohiturek, gizartean parte hartzeko bide tradizionalek gazteen artean izan duen gainbeherak eta esparru politikotik urruntzeko joerak. Hori ikusita, gazteentzako politika orokorrak egin nahi dira gazteen lege baten bidez, gazteen arazoei aurre egiteko.

Zehazki, hiru helburu nagusi hauek ditu Gazteen Euskal Legeak:

- Gazteen autonomia eta emantzipazioa erraztea, zeharkako politikak sendotuz eta sailak

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1ERN-M9AS bilagailua erabilita, dokumentu hau egiaztatu den ala ez jakin niteke egoniza elektronikoa honetan: <http://euskad.eus/lokalizazioa>.

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1ERN-M9AS en la sede electrónica <http://euskad.eus/lokalizazioa>. Donostia, San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ



- Berariaz gazteria sustatzera bideratuta dauden zerbitzu eta ekipamenduetan gutxieneko kalitate-baldintzak bermatzea.
- Euskadiko gazteek parte hartzeko eta solaskide izateko bideak zabaltzea, tokiko eremuan ere bide egonkorak sortuta, eta, era berean, bide horietan elkarreentako gazteak zein elkarreentatik kanpoko gazteak aintzat hartuta.

2.- Arauak eskubideen, premien eta taldeen gainean izango duen eragina identifikatzea.

2.1.- Arauak haurren eskubide zehatzen gainean izan dezakeen eragina.

Arauak ez du eraginik izango haurren eskubideengan.

2.2.- Arauak haurren oinarritzko premien gainean izan dezakeen eragina.

- Berdinen arteko interakzioa.
- Hezkuntza ez-formala.
- Jolasa eta aisia-denbora.

2.3.- Arauak haurren, nerabeen eta familien talde jakinen gainean izan dezakeen eragin berezia.

Gazteen esparruko zehar-politikak bultzatzeko neurriak eta tresnak 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude, baina gazte-sustapeneko neurriak eta tresnak 12 urtetik gorako haurrei zuzentzen zaizkie.

Horrez gainera, Gazteen Euskal Legea adingabeko pertsona guztiak izango da betetzekoa, beren denbora librearen erabilera eta gazteriaren sustapena arautzeko alderdietan.

3.- Arauak haurren, nerabeen eta familien gainean izango duen eraginaren analisia.

3.1.- Arauaren alderdi zehatzen eragina haurren, nerabeen eta familien premien gainean.

Arauaren aplikazio-eremuko jarduerak izango dira prestakuntza-helburua dutenak eta aisialdia antolatzekeo xedea dutenak, baldin eta adingabekoek parte hartzen baldin badute jarduera horietan eta ez baldin badira familian edo eskolan egitekoak.

Haurren eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskolak sartzen dira Gazteriaren Euskal Sistemako zerbitzuen katalogoan. Haurren eta gazteen aisialdirako heziketa-jardueretarako begiraleak eta zuzendariak trebatzeko instalazioak dira, besteak beste.

Katalogo horretan sartzen dira, era berean, gazte-aterpetxeak, hau da, gazteei —banaka edo taldean— ostatu emateko instalazioak. Baldintza jakin batzuk betez gero, beste kolektibo batzuei ere ostatu eman ahal diete, igarobide gisa, egonaldietarako edo jarduera jakin batzuk egiteko.

3.2.- Abiatze-egoera eta arauaren onarpenak eragin ditzakeen aldaketak.

Gaur egun, erakunde publiko eta pribatu askok antolatzen dituzte adingabeko pertsonentzako jarduerak, bai puntualak edo esporadikoak, bai urtean zehar edo garai jakinetan (udan, Gabonetan, Aste Santuan) egiten direnak, hala nola kanpamentuak, udalekuak, auzolandegiak eta ibilaldiak.

Era berean, aitortza ofiziala dute haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak trebatzeko eskola batzuek, eta eskola horietan haur eta gazteen aisialdirako heziketa-jardueren begirale eta zuzendari izateko ikastaroak irakasten dira, besteak beste.

Gazteen Euskal Legearen bidez, haurren eta gazteen aisialdiko hezitzaileak prestatzeko eskolak bermatu nahi dira, balioetan hezi, gizarte-trebetasunak irakatsi eta pertsonaren garapen osoa bultzatzen laguntzeko erakunde espezializatuak diren aldetik. Beren hezkuntza-proiektuaren izaera ez-formalaren alde egin nahi da, eta beren metodologia aktiboak bultzatu nahi dira, esperientziaren oinarria, izaera ludikoa eta arreta indibidualizatua ziurtatzen duten aldetik. Finean, haurren eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueren begiraleei eta zuzendariari behar bezalako prestakuntza ematea onuragarri izango da hurrei, nerabeei eta gazteei emango zaien heziketa hobetzeko.

Adingabekoekin egiten diren jarduerak baldintza egokietan egiten direla bermatzea da Gazteen Euskal Legearen beste xede bat. Hori horrela, jarduerak segurtasuneko, garbitasuneko eta osasuneko, ingurumeneko eta hezkuntzako baldintza egokietan egiten direla bermatzeaz gain, nahitaezkoa izango da segurtasuneko eta larrialdiko plan bat izatea, erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzea eta jarduerak berdintasun-irizpideak beteko dituztela ziurtatzea. Horrez gainera, emantzipatu gabeko adingabekoek beren guraso-ahala edo tutoretza duen pertsona baten laguntzarik gabe parte hartzen baldin badute jardueraren batean, beti izan beharko dute guraso-ahala edo tutoretza duen pertsonaren edo pertsonen berriazko idatzizko baimena.

3.3.- Arauaren onarpenak izango dituen emaitzen aurreikuspena.

Haurrek eta nerabeek kalitateko aisialdia izango dutela ziurtatuko du arauak, eta aisialdiko jarduerak behar diren segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzak izango dituztela.

Era berean, haurren eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueren begiraleen eta zuzendarien prestakuntzak kalitate-estandar egokiak izango dituztela bermatuko arauak, eta horrek hobetu egingo ditu hurrekin, nerabeekin eta gazteekin egingo diren aisialdiko hezkuntza-jarduerak.

4.- Arauak haurrengan, nerabeengan eta familiengan duen eraginaren balorazioa.

Txosten honek aztertutakoa aintzat hartuta, arauak haurrengan eta nerabeengan eragin ona izango duela irizten da, berdinaren arteko interakzioa, hezkuntza ez-formala eta jolasa eta aisialdia lantzeko premiak asetzen lagunduko baitu, txostenaren 2.2. puntuan adierazten den moduan.

Arauak familiengan izango duen eraginari begiratuta, eragin ona izango duela baloratzen da kasu honetan ere, kalitateko aisialdia eskaintzeaz gain, adingabekoek egingo dituzten aisialdiko jarduerak kalitatea, segurtasuna eta osasungarritasuna bermatu behar dutela arautzen duelako, eta horrek bermeak ematen dizkielako gurasoei eta tutoreei.

5.- Eragin positiboa indartzen laguntzeko neurriak

5.1.- Proiektuan egin diren aldaketak edo zuzenketak, haurren, nerabeen eta familien premiak asetzeko eta eskubideak erabiltzeko oztopoak zuzentzeko edo egoera horiek konpontzeko, edo, egoera behar bezain ona ez baldin bada, erabilera indartzeko.

Ez da aldaketarik edo zuzenketarik egin alderdi horietan.

5.2.- Arauaren aplikazioaren gaineko gomendioak eta neurri osagarriak eta/edo konpentsatzeko neurriak hartzeko gomendioak, haurrengan, nerabeengan eta gazteengan izan ditzakeen eragin kaltegarriak baztertzeko edo eragin onuragarriak bermatzeko eta indartzeko.

Alderdi horien gaineko ekarpenak jasotzen direnean aztertuko dira, halakorik baldin badago.

6.- Eranskina.

Txosten hau egiteko, Gazteria Zuzendaritzaren beraren iturriak baliatu dira, eta, berariaz, jardueren komunikazioari dagozkionak, horiek baliatu beharra arautzen baitute, batetik, ekainaren 25eko 170/1985 Dekretuak, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, koloni irekien, kanpaldien eta udalekuen, auzolandegien eta ibilaldien araubidea ezartzekoak, eta azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuak, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duenak.

Vitoria-Gasteiz,

Ander Añibarro Maestre
GAZTERIAKO ZUZENDARIA
 (Elektronikoki sinatua)

O.E.

Marcos Muro Nájera

ENPLEGU ETA GAZTERIAKO SAILBURUORDEA

(Elektronikoki sinatua)